

# WOW fidelizazio-programaren baldintza orokorrak

## 1. Sarrera

Baldintza orokor hauek ("**Baldintza Orokorrak**") arautzen dute WOW fidelizazio-programa ("**Programa**" edo "**WOW Club**"). Hau da horren titularra:

- Espainian: Tendam Retail SA, egoitza Avda. del Llano Castellano 51, Madril (Espainia) helbidean duena eta A-08099459 IFZrekin;
- Portugalen: Confespanha Confecções SA, egoitza Edifício Tivoli Forum, Av. da Liberdade 180 E, 3. A, 1250-146 Lisboa helbidean duena eta 504247190 IFZrekin.
- Hungarian: WOMEN'S SECRET MAGYARORSZÁG Kft, egoitza Ányos Pál u 3, 1 Floor offices nº 6, 8000-Székesfehérvár, Magyarország-HUNGARIA helbidean duena eta VAT zenbaki honekin: HU12771440

(horietako edozeinen izena, "**Tendam**", taldean zein banaka).

Baldintza Orokor hauek zehazten dute Programaren funtzionamendua eta horren titularrek ("**Titularra**" edo "**Titularrak**") puntuak lortzeko eta berrerosteko prozesua. Titularrek une oro eskuragarri eta eguneraturik izango dituzte indarrean dauden Baldintza Orokorrak WOW Clubaren web-orrian sartuta, Titular gisa une bakoitzean aplikagarriak izango zaizkien Baldintza Orokoren jakitun izan daitezen. Titularrek aitortzen dute ezagutzen dituztela horiek.

Tendamek bere kabuz aldatu ahal izango ditu Baldintza Orokor hauek, justifikatutako arrazoiengatik, horiek WOW Clubaren Titularrei jakinarazten badizkie. Alderdiak berariaz adosten dute betekizun hori beteta geratuko dela aldaketak [womensecret.com](http://womensecret.com) [dashhandstars.com](http://dashhandstars.com), edo [clubwow.womensecret.com](http://clubwow.womensecret.com) webgunetan nahiz salmenta-gunetan argitaratzearekin.

Titularra ez balego ados aldaketekin, Tendami jakinaraz diezaioke, eta baja emango du Titular gisa.

Tendamek ez badu uneren batean Baldintza Orokor hauetakoren bat aplikatzen, horrek ez du esan nahi uko egiten dionik baldintza hauetako edozein bete dadila eskatzeko bere eskubideari.

Titular bakoitzak kontu-zenbaki pertsonal eta besterenekin bat izango du, bere datu pertsonalekin identifikaturik egongo dena eta Programan parte hartzea ahalbidetuko diona. Titularrak bere kontu birtualean kontsultatu ahalko du horri

buruzko informazioa. Tendamek beretzat gordetzen du txartel fisikorik ez jaulkitzeko eskubidea.

WOW Club ezarrita dagoen herrialdetan, puntuak metatzeko eta berrerosteko aurrerago zehazten diren baldintzak betez, Titularrek abantailak izango dituzte Programan parte hartzeagatik Women'secret markaren saltoki fisikoetan, womensecret.com eta dashandstars.com web-orrian eta Women'secret-en aplikazioan ("**Saltokiak**"). Argibide gisa, Programa ez da aplikatuko outlet-etan egindako erosketetan (nahiz eta erositako produktuak Women'secret edota Dash and Stars markakoak izan) eta Tendameko beste marka batzuen denda fisikoetan zein online saltokietan edo Saltoki gisa zehazten direnen bestelako denda batzuetan (azalpen gisa, baina horietara mugatu gabe: Cortefiel.com edo myspringfield.com) egindako erosketetan. Kasu horietan, bezeroak dagokion markaren fidelizazio-klubeko puntuak metatuko lituzke (adibidez, Cortefiel & Pedro del Hierro Clubean, edo Springfield Clubean), baina ez WOW Clubean.

Tendamek merkataritza-informazioa helarazi ahalko dizu urruneko edozein bitarte elektronikoen edo posta bidez. Gure pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago aurkitu dezakezu **hemen**.

## **2. Titularren alta**

WOW Clubean alta eman ahalko dute Programa ezarrita den herrialderen batean bizi diren 18 urtetik gorako pertsona fisikoek, zeinak Baldintza Orokorrak irakurri eta onartu beharko baitituzte Tendamek horretarako une oro gaituta dituen kanalen bidez. Kontua pertsonala eta besterenezina da.

Programan izena emateko eta horrien abantailak izateko eskabidea kanal hauen bidez egin daiteke:

- a) Programa ezarrita den herrialdetako edozein Women'secret denda fisikoetan, erosketa bat egiten duzunean. Une horretan Baldintza Orokorrak irakurri, eskatzen diren datu pertsonalak eman eta Baldintza Orokorrei onarpena eman behar diezu, eskura jarriko zaizun gailu elektronikoa egiten duzun sinaduraren bidez;
- b) Womensecret.com edo dashandstars.com webgunearen bidez, Women'secret markaren aplikazio mugikorrean erregistratuz, edo, unean-unean klubaren webgunearen bidez (clubwow.womensecret.com). Edozein kasutan, berariaz onartu beharko dituzu Baldintza Orokorrak.

Gainera, alta guztietan berrespen posta elektronikoa bat edo SMS bat jasoko duzu 24 orduko epean, WOW Clubaren web-orrirako esteka bat duena, zeinetan une oro aurkitu ahalko baituzu onarpena eman diezun Baldintza

Orokorren bertsio eguneratua. Baldintza Orokor horiek euskarri elektroniko batean geratuko dira gordeta, eta noiznahi izango dituzu eskura alta eman duzun herrialdeko hizkuntza ofizialean clubwow.womensecret.com web-orrian.

Kontuan izan beharko da batzuetan gure Saltokietako batean erosketa bat behar bezala burutu ondoren bakarrik eman ahalko dela alta WOW Clubean Titular gisa.

Saltokietan bezeroa Titular gisa identifikatzen denean, esan nahi du Baldintza Orokor hauek ezagutzen eta onartzen dituela, salbuespenik gabe.

Programan izena emateko, telefono mugikorreko zenbaki baliodun bat izan behar da, ezinbestean. Era berean, bai Espainian bai Portugalen alta ematean, nortasun agiri nazional bat edo, hala badagokio, atzerriko identifikazio-zenbaki baliodun bat izan beharko da.

### **3. Kategoriak**

Bi kategoria daude Programan, Titularrak aurreko urtean egin izan dituen erosketen zenbatekoaren arabera.

Urte bakoitzeko otsailean Programaren kategoriak aztertzekeo prozesu orokorra burutuko da, aurreko urtealdian egindako gastuaren zenbatekoa kontabilizatuta. Horren ondorioz kategoria aldatzea egokitzen bada, kategoria berriari lotutako onurak eguneratze horretatik aurrera jarriko dira indarrean.

Titular berri batek Programan izena ematen duenean, WOW kategoria esleituko zaio zuzenean, lehen urtean behintzat.

Programak jarraian zehazten diren kategoriak esleituko ditu, azaltzen diren irizpideei jarraituz:

- WOW: kategoria hori esleituko zaie Titular berriei eta aurreko urtealdian 120 (ehun eta hoge) € baino gutxiagoko gastua egiten duten guztiei; eta, \*Hungarian alta emandako bazkide guztiek WOW kategoria izango dute
- WowPremium: aurreko urtealdian 120 (ehun eta hoge) € edo gehiagoko gastua egin duten Espainian edo Portugalen alta emandako WOW Clubeko Titular guztiei esleituko zaie.

### **4. Programaren onurak**

Programan alta eman eta Titular gisa dagokion Saltokian identifikatzean, horietan egiten dituzun erosketetan metatzen duzun Women'ssecret dirua

("WowMoney") lortu eta erabili ahalko duzu, eta jarraian azaltzen ditugun onura gehigarriez gozatu.

- a) Gastuaren zenbatekoaren gaineko WowMoneya lortu, gastu hori gure Saltokietan egina denean, betiere.
- b) WowMoneya berrerosi gure Saltokietan salgai dauden produktuen erosketa ordaintzean.
- c) Programaren abantaila, onura eta sustapen eksklusiboez gozatu, kategoriaren arabera.

Onurak ez dira metagarriak Tendamen beste fidelizazio-programa edo indarreko txartel batzuei.

Programaren abantailak pertsona naturalentzat bakarrik dira, zeinak era pertsonalean gozatuko baitute kide izatearen edozein onuraz. Pertsona juridikoak ezingo dira erregistratu Programan eta ezingo dute metatu inolako abantailarik, WowMoneya metatzea barne.

#### **4.1. WowMoney**

WowMoneya da Programaren moneta. Titular batek era pertsonalean lortzen eta berrerosten du WowMoneya. WowMoneya ezin da besterendu, eta ezin da ere trukatu diruagatik edo Programan zehazten ez diren beste ondasun batzuegatik.

- **WowMoneya lortzea**

WowMoneya Titularrak gure Saltoki batean egindako erosketen zenbateko garbiaren (sustapenak eta WowMoneyarekin egindako beste ordainketa batzuk deskontatuta) gaineko ehuneko baten arabera ("**Zenbatekoa**") metatzen da.

Titularrari jakinaraziko zaio zer WowMoney lortu duen, clubwow.womensecret.com webgunearen bidez edo Bezeroaren Arretarako Zentroan edota Saltokian bertan.

Titular berriak Programara atxikitzen direnean, Titular gisa identifikatuta egiten duten eta Programari atxikitzeko aukera zabaldu dion lehen erosketa horretatik hasiko dira irabazten WowMoneyak.

Titularrek Programa ezarrita den edozein herrialdeko gure Saltokietan egindako bere erosketa guztietan lortu ahalko dituzte WowMoneyak.

Alta Hungarian emana duten Titularrek, halere, soilik Hungariako gure Saltokietan egindako erosketengatik lortu ahalko dituzte WowMoneyak.

Titularrak WowMoney portzentaje ezberdina metatuko du, bere kategoriaren arabera:

- WOW Titularrek, egiten duten gastuaren Zenbatekoaren %5 jaso ahalko dute WowMoneytan.

- WowPremium Titularrek, egiten duten gastuaren Zenbatekoaren %7 jaso ahalko dute WowMoneytan.

WowMoneya ezin da erabili Women'secreten Opari-txartela eskuratzeko. Opari-txartelaren kasuan, WowMoneyrik metatuko txartel horren erosketaren zenbatekoagatik. Opari-txartelaren zenbatekoa erabiltzen duenarentzat ez da WowMoneyrik sortuko txartel horretako diruarekin egiten diren erosketetan.

Online eskaeren bidalketa gastuen zenbatekoak ez du WowMoneyrik sortuko.

Erosketa bat partez edo osorik itzultzen bada, Titular gisa identifikatu beharko da dagokion identifikazioa aurkeztuz (Espainian eta Portugalen, nortasun nazionalaren agiria) erosketa-tiketarekin batera. Hori egin ondoren, ezabatu egingo da erosketa horrekin sortu zen WowMoneya.

Itzuli behar den erosketa egitean WowMoney erabili izan bada, honela itzultzen da: erosketan erabili den WowMoneya tiketeko artikulu guztien artean banatuko da, eta itzultitako artikuluari dagokion zenbatekoaren itzulketa proportzionala aplikatuko da, Titularren kontuan kargatuz.

Erosketan erabilitako WowMoneya iraungi egin bada erosketa itzultzeko epealdian, ez da itzulketarik egingo.

- **WowMoneyaren baliozkotasuna eta iraungipena**

WowMoneya erosketa egin orduko sortuko da, eta erabilgarri egongo da Titularrak gure Saltokietako batean egiten duen hurrengo erosketarako, baita horren ondoren egun berean egiten direnetarako ere.

WowMoneyak sei (6) hilabeteko iraungipena izango du lehen erosketatik edo Programa ezarrita izan eta moneta gisa euroa darabilten herrialdetan WowMoneya azken aldiz erabiltzen denetik hasita.

Hungarian, berriz, hamabi (12) hilabeteko iraungipena izango du, lehen erosketatik edo WowMoneya azken aldiz erabiltzen denetik hasita.

- **WowMoneyaren berrerospena**

Titularrak gure Saltokietan horrela identifikatuta egiten dituen erosketetan deskontuagatik trukatu ahalko ditu WowMoneyak. Bezeroek lehen erosketarekin sortutako lehen WowMoney idatzoharretik baliatu ahalko dira horrekin ordaintzeko. WowMoneya erabiltzeko ez da gutxieneko erosketa bat egin beharrik.

Titularrek alta eman duten herrialdean egiten dituzten erosketa guztietan berrerosi ahalko dute euren WowMoneya. WowMoneya ezingo da berrerosi alta eman den herrialdea ez den beste batean, ezta herrialde horretan WOW Cluba ezarrita egon arren ere.

WowMoneyaren berrerospena erosketaren amaierako Zenbatekoaren gainean egiten da. Erosketaren Zenbatekoa Titularrak une horretan duen WowMoneyaren baino handiagoa bada, "ordainketa mistoa" egiteko aukera egongo da, eskudirua (efektiboan edo txartel bidez) eta WowMoneya uztartuta.

Ordainketa mistoaren modalitatean dibisa mota bat bakarrik onartuko da berrerospen bakoitzeko, eta gure sistemetan egunero ezarritako truke-tasa aplikatuko da.

Metatutako WowMoneya aldi bakar batean trukutzen da produktuengatik gure Saltokietan. Erabili izan den WowMoneya erosketaren Zenbatekoa baino handiago bada, diferentzia galdu egingo da.

WowMoneya erabiliz WowMoney gehiago sortzen da (erosketa doan denean izan ezik), eskudirutan edota bankuko txartel bidez abonatutako prezioen diferentzien zenbatekoagatik.

Opari-txartelaren kasuan, berrerospen duena Titularra bada, Titular horrek ez du WowMoneyrik metatuko Opari-txartelaren zenbatekoagatik.

Titular batek Opari-txartel bat erabiltzen badu erosketa batean, ezingo du bere WowMoneya erabili erosketa horretan.

- **WowMoney erreklamazioak**

Une batean WowMoney metatzeko edo erabiltzeko zerbitzua Tendamen erantzukizunaz kanpoko inguruabarrengatiko edo sistemaren hobekuntzengatiko komunikazioen akats baten ondorioz eten behar bada, Titularrak eskubidea izango du idatzoharrean jaso gabeko WowMoneya egiazta dadila eskatzeko (egindako erosketa sinesgarriro egiaztatzen duen erosketa-tiketa aurkeztuta), baina ezin izango da Programaren zerbitzuez baliatu komunikazioak berrezarri arte.

Ez da erosketak egin ondorengo grabaziorik onartuko.

## 4.2. WOW izatearen onurak

WOW kategoriako Titularrek abantaila hauek izango dituzte:

- a) Gastuaren Zenbatekoaren gaineko WowMoneya lortuko du, gastu hori gure Saltokietan egiten denean, betiere.
- b) WowMoneya erabiliko du gure Saltokietan salmentan diren produktuen erosketara ordaintzeko, "WowMoneyaren berrerospena" atalean zehazten den moduan.
- c) WowMoneya lortuko du Titular gisa identifikatuta gure online Saltokietako batean erosketara bat egin eta hori jasotzeko edota itzultzeko gure denda Fisikoetako bat aukeratzen duenean.

Abantaila hau Espainian dauden gure online dendetan (Espainiako gure denda fisikoetan lineako eskaera horiek jasotzeko eta/edo itzultzeko) eta Portugaleko gure online dendetan (online eskaera horiek jasotzeko eta/edo itzultzeko) eskuragarri dago. gure denda fisikoak Portugalen). Beti beharrezkoa izango da eskaerak erosketara egin den herrialde berean biltzea/itzultzea.

Titularrak 1 € (euro bat) lortu ahaliko du Saltoki fisikoan jasotzen duen erosketara bakoitzagatik eta itzulketa Saltoki fisikoan egitea aukeratzen duen bakoitzagatik, muga hauekin: gehienez bi (2) hobari denboraldi bakoitzean jasotzeagatik (hots, gehienez bi hobari udaberria-udan, eta gehienez bi hobari udazkena-neguan), eta bi (2) hobari denboraldi bakoitzean itzultzeagatik (hots, gehienez bi hobari udaberria-udan, eta gehienez bi hobari udazkena-neguan). Argibide modura, hobari horiek ezin dira metatu urte natural bereko denboraldi batetik bestera.

Titularrak bere online erosketara egitean Saltoki fisikoan jasotzea aukeratuko balu, ez luke jasoko euro bateko hobaria eskari hori bera Saltoki fisikoan itzultzean. Hots, eskaera horretan hobari bakar bat izango luke, eskaera Saltoki fisikoan jasotzeari legokiokeena.

WowMoney estra Titularren kontuan kargatuko da gutxi gorabehera 7 eguneko epean, online eskaera Saltoki fisikoan jasotzen edo itzultzen denetik kontatzen hasita. WowMoney estra horren funtzionamendua ohiko WowMoneyaren berbera da, eta beraz, zure WowMoney saldoarekin batera iraungiko da.

- d) Urtebetetzeko 6 €-ko txekoa (2.100 FT, Hungarian alta emandako bazkideentzat)

Urtebetetze Txekoa WOW Titular bakoitzarentzat sortuko da urtebetetze-data gisa adierazi duen egunean, urtean behin, eta hori sortzeko Titularrak erosketara bat, gutxienez, egin behar du 2019tik gure Saltokietan, eta

data hori WOW Clubean Titular gisa alta emandakoaren geroztikoa izan behar du.

6 €-ko (2.100 FT, Hungarian alta emandako bazkideentzat) Urtebetetze Txekia erabiltzeko, WOW Titularrak 10 €-ko (3.500 FT, Hungarian alta emandako bazkideentzat) gutxieneko erosketa bat egin beharko du bere urtebetetze-dataren ondorengo hogeita hamaika (31) eguneko epean, txeke hori gure Saltokietako batean trukatu nahi duenean.

e) Online bidalketarako baldintza eksklusiboak WOW izateagatik

Espanian, kostua euro batekoa (1 €) izango da 30 € baino gutxiagoko erosketentzat penintsulan, Balearretan eta Kanarietan entregatu behar direnean. 30€-tik gorako erosketentzat, zure online bidalketak doan izango dira.

Ceutan edo Melillan entregatu behar diren eskaerentzat, kostua zazpi euro eta laurogeita hamabost zentimo (7,95 €) bakarrik izango da 50 €-tik beherako erosketentzat (bazkide ez direnentzat 9,95 € izango da). 50 €-tik gorako erosketetan, zure online bidalketak doan izango dira.

Portugalen, kontinentean egin beharreko entregentzat zure online bidalketak doan izango dira 20 €-tik gorako erosketetan. 20 €-tik beherako erosketen bidalketentzat, berriz, kostua 3,95 € izango da bidalketako.

Azores eta Madeirako bidalketetarako kostua 4,99 eurokoa izango da bidalketa bakoitzeko.

Hungarian, Titularrek 299 FT besterik ez dute ordaindu beharko (titular ez direnek 999 FT ordaindu behar dute), eta bidalketak doan izango dituzte 6.999 FT-tik gorako erosketetan (titular ez direnek 12.000 FT-tik gora dute doan).

### 4.3. WowPremium izatearen abantailak

Espanian edo Portugalen alta emandako WowPremium kategoriako titularrek abantaila hauek izan ahalko dituzte:

- a) Gastuaren Zenbatekoaren gaineko WowMoneya lortuko du, gastu hori gure Saltokietan egiten denean, betiere.
- b) WowMoneya erabiliko du gure Saltokietan salmentan diren produktuen erosketa ordaintzeko, "WowMoneyaren berrerospena" atalean zehazten den moduan.
- c) WowMoneya lortuko du Titular gisa identifikatuta gure online Saltokietako batean erosketa bat egin eta hori jasotzeko edota itzultzeko gure denda Fisikoetako bat aukeratzen duenean.

Abantaila hau Espainian dauden gure online dendetan (Espainiako gure denda fisikoetan lineako eskaera horiek jasotzeko eta/edo itzultzeko) eta Portugaleko gure online dendetan (online eskaera horiek jasotzeko eta/edo itzultzeko) eskuragarri dago. gure denda fisikoak Portugalen). Beti



beharrezkoa izango da eskaerak erosketa egin den herrialde berean biltzea/itzultzea.

Titularrak 1 € (euro bat) lortu ahalko du Saltoki fisikoan jasotzen duen erosketa bakoitzagatik eta itzulketa Saltoki fisikoan egitea aukeratzen duen bakoitzagatik, muga hauekin: gehienez bi (2) hobari denboraldi bakoitzean jasotzeagatik (hots, gehienez bi hobari udaberria-udan, eta gehienez bi hobari udazkena-neguan), eta bi (2) hobari denboraldi bakoitzean itzultzeagatik (hots, gehienez bi hobari udaberria-udan, eta gehienez bi hobari udazkena-neguan). Argibide modura, hobari horiek ezin dira metatu urte natural bereko denboraldi batetik bestera.

Titularrak bere online erosketa egitean Saltoki fisikoan jasotzea aukeratuko balu, ez luke jasoko euro bateko hobaria eskari hori bera Saltoki fisikoan itzultzean. Hots, eskaera horretan hobari bakar bat izango luke, eskaera Saltoki fisikoan jasotzeari legokiokeena.

WowMoney estra Titularraren kontuan kargatuko da gutxi gorabehera 7 eguneko epean, online eskaera Saltoki fisikoan jasotzen edo itzultzen denetik kontatzen hasita. WowMoney estra horren funtzionamendua ohiko WowMoneyaren berbera da, eta beraz, zure WowMoney saldoarekin batera iraungiko da.

d) 12 €-ko Urtebetetze Txekea

Urtebetetze Txekea WowPremium Titular bakoitzarentzat sortuko da urtebetetze-data gisa adierazi duen egunean, urtean behin, eta hori sortzeko Titularrak erosketa bat, gutxienez, egina izan beharko du 2019tik gure Saltokietan. Data hori WOW Clubean Titular gisa alta emandakoaren geroztikoa izan behar da.

12€-ko Urtebetetze Txekea erabiltzeko, WowPremium Titularrak 20 €-ko gutxienerako erosketa bat egin beharko du bere urtebetetze-dataren ondorengo hogeita hamaika (31) eguneko epean, txeke hori gure Saltokietako batean trukatu nahi duenean.

e) WowPremium Titularrak saldo handiagoa metatuko du egiten duen erosketa bakoitzarengatik. Hots, WowPremium Titularrek %7ko WowMoneya metatuko dute xahutu duten Zenbatekoaren gainean.

f) Online bidalketarako baldintza eskusiboak WowPremium izateagatik

Espanian, bidalketak doan izan ahalko dituzu penintsulan, Balearretan eta Kanarrietan egin behar diren entregetan.

Ceutan edo Melillan entregatu behar diren eskaerentzat, kostua zazpi euro eta laurogeita hamabost zentimo (7,95 €) bakarrik izango da 50 €-tik beherako erosketentzat (bazkide ez direnentzat 9,95 € izango da). 50 €-tik gorako erosketentzat, zure online bidalketak doan izango dira.

Portugalen, kontinentean egin beharreko entregak doan izango dira urte osoan.

Azores eta Madeirako bidalketarako kostua 4,99 eurokoa izango da bidalketa bakoitzeko.

- g) Itzulketa-epe luzeagoa: WowPremium Titularrak gure Saltokietan erositako produktuak 60 eguneko epean itzultzeko aukera du, 30 eguneko ohiko epearen orde.
- h) Horrez gain, WowPremium Titularrek unean uneko zozketa eta sarietarako aukera izango dute, eta une bakoitzean behar bezala emango zaie horien berri.

## **5. Programaren funtzionamendua**

Erabiltzailea Titular gisa identifikatu behar da une bakoitzean fidelizazio-kluba ezarrita izanik moneta gisa euroa darabilten herrialdeetako edozein Saltokietan egiten duen erosketak bakoitzean. Erosketen bolumena zeure kontuan joango da erregistratzen. Fidelizazio-kluba une bakoitzean non ezarrita den kontsulta dezakezu gure ohiko galderen atalean, klik eginez **hemen**.

Titular bakoitzak une bakoitzean fidelizazio-kluba ezarrita izanik moneta gisa euroa darabilten herrialdeetako edozein Saltokietan egiten duen erosketen bolumenaren arabera metatuko du WowMoneya, eta aipatu erosketak egitean erregistratuko da. Titularrak alta eman duen herrialdeko edozein Saltokietan erabili ahalko du metaturik duen WowMoneya. Erosketen zenbaketa globalerako, erosketak bakartzat hartuko dira Saltoki berean data berean egindako guztiak.

### **Zuk hau egin behar duzu**

1. Identifikatu zure izen-abizenekin eta/edo zure NAN edo AIZ zenbakiarekin, hala dagokionean NAN edo AIZrekin (Espainia eta Portugalen kasuetan) WowMoney eta WOW Klubaren gainerako abantailak erabiltzeko.
2. WOW Clubeko Titular gisa Baldintza Orokor hauek bete eta behar bezala erabili.

### **WOW Clubak hau egin behar du**

1. Titularraren eskabidean eta eguneratzeetan emandako datuen konfidentziasuna zaindu.
2. Titularrari arreta eman Bezeroaren Arretarako Zentroan:

Espainian alta emandako bezeroentzat:

900 37 33 07 doako telefonora dei dezakezu astelehenetik ostiralera 10:00etatik 20:30era bitartean, eta larunbat eta jaiegun nazionaletan 10:00etatik 15:00etara bitartean, edo posta elektronikoko bat bidal diezagukezu hona: [wow@womensecret.com](mailto:wow@womensecret.com)

Portugalaren alta emandako bezeroentzat:

707 200 950 telefonora dei dezakezu (deiaren kostua: minutuko 0,10 € telefono finkoan, eta minutuko 0,25 € telefono mugikorrean) astelehenetik larunbatera 10:00etatik 20:00etarako ordutegian, edo posta elektronikoko bat bidali hona: [wow@womensecret.com](mailto:wow@womensecret.com)

Hungariaren alta emandako bezeroentzat:

+3680106705 doako telefonora dei dezakezu astelehenetik ostiralera 10:00etatik 20:30erako ordutegian, edo posta elektronikoko bat bidali hona: [wow@womensecret.com](mailto:wow@womensecret.com)

## **6. Txartela galtzea**

Programak txartel fisikoak ditu. Lehendik jaulkitako txartela galdu edo hondatu egiten bada, Titularrak eskura izango du dagokion informazioa bere gune pribatuan. Lehendik jaulkitako txartel fisikoa lapurtu edo ebatsi bada, Titularrak Bezeroaren Arretarako Zentroari jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

Tendamek ez du bere gain inolako erantzukizunik Titularrarekin zerikusirik ez duten hirugarren batzuk iruzurrez txartelarekin horren Titular gisa eta metatutako onurez egiten duten erabilpenarengatik.

## **7. Ezeztapena**

Programan parte hartzeak ez du iraungipen-datarik izango, baina pertsona baten titulartasuna eta Programa bera ezeztatu ahalko dira jarraian azaltzen diren arrazoiertako batengatik.

Tendamek Programako kide izatea ezeztatzeko eskubidea izango du, askatasunez eta alde zuzenetik jakinarazi gabe, honako kasu hauetan: Titularrak betebeharren bat ez betetzea, Baldintza Orokorrek ez betetzea, iruzurrezko

ekintzak, espekulatiboak, irregularrak edo fede txarrekoak burutzea, hargatik eragotzi gabe Tendamek, hala badagokio, aurkez dezakeen kalte-galeren erreklamazioa. Hauek dira Tendamek bazkidetasuna ezeztatzeko justifikatzen duten jokabide horietako batzuk, adibide gisa eta mugatzeko asmorik gabe: erabiltzaile batek baino gehiagok kontu bera erabiltzea, kontuaren Titular bati emandako programaren abantailez baliatuta; Titular izateko gutxieneko baldintzak –hau da, adingabea izatea edota Titular gisa erregistratzeko eskatutako informazioa faltsutzea– ez betetzea; posta elektronikoa eta jaiotze-data ezberdinekin alta ematea, urtean behin baino gehiagotan izateko Urtebetetze Txekoa; Titular berri bezala alta ematea benetan berria izan gabe, Titular berrientzat bakarrik den edo baldintza hobeagoetan den sustapen batez baliatzeko; sustapen-kode bat hainbatetan erabiltzea, sustapenaren legeoinarriek behin baino ezin dela erabili ezartzen dutenean; WowMoney iruzurrez erabiltzea Titular gisa dagozkion baino deskontu handiagoak lortzeko; iruzurrezko jokabideak egitea itzultzeko asmoz erosteko jantziak, era horretan WowMoney gehiago sortu eta jantziak guztiz doan edo prezio irregularki txikiago batean eskuratzeko; Opari-txartela iruzurrez erabiltzea WowMoney gehiago lortzeko, etab.

Tendamek, halaber, Programaren bazkidetasuna ezeztatu ahalko du Titularren heriotzaren edo desagerpenaren kasuan.

Titularrak edozein unetan bertan behera utzi ahal izango du programako bazkidetza, Tendam-i idatziz jakinaraziz (gutuna, posta elektronikoa, faxa) eta bere burua behar bezala identifikatuta. Ondorio horietarako, zure izen-abizenak eta/edo NAN edo AIZ zenbakia (Espainiarako eta Portugalerako), hala dagokionean, eskatuko zaizu. Borondatezko kentzeak zure WowMoney eta etekin guztiak automatikoki galduko ditu zure Titularra kontua desaktibatzen den unetik eta Titularra izateko baldintza galtzen duzun unetik.

Tendamek beretzat gordetzen du Programa edozein unetan ezeztatzeko eskubidea, dela ezinbesteko arrazoiengatik, dela legezko, gobernuko edo bestelako inposizioengatik, dela enpresa-estrategiagatik.

Lehen aipatutako kasu guztietan, Titularrak automatikoki galduko du titular gisa horren onurak eta Programari lotutako abantailak erabiltzeko eskubidea, eta galdu egingo du bere WowMoneya, enpresa-estrategiagatik baliogabetzen den kasuan izan ezik. Kasu horretan, Titularrak WowMoneya erabiltzeko eskubidea izango du Programa ezeztatu ondorengo hiru (3) hilabeteetan, eta horren berri emango zaio [womenssecret.com](http://womenssecret.com) edo [\[dwenssthand.com\]](http://dwenssthand.com) [wensashand.com](http://wensashand.com) webguneen edota salmenta guneen bidez.

Titularrarentzat Programa doan denez, arestian aipatutako kasu bakoitzean eta guztietan berariaz uko egiten dio Tendami Titular gisa edota Programa ezeztatzeagatik kalteak eta galerak eskatzeari.

Guztiz debekatuta dago Titularraren (edo txartelaren, txartel zaharren kasuan) edozein baldintza edo Programaren edozein abantaila saltzea edo trukatzea. Horrelakorik egiten bada, berehala ezeztatuko da titulartasuna zein Programan parte hartzeko aukera.

## **8. Erantzukizuna**

Tendamek ez du erantzukizunik izango:

- a) Titularrak bere titular izaerari eta metatutako WowMoneyari ematen dion erabilpen edo helburuagatik;
- b) Ezarritako edozein betebeharrak Titularrak ez betetzeagatik;
- c) WowMoney metatzean, datuak prozesatzean eta abarretan egindako edozein akats edo hutsengatik, hori ezin denean zuzenean egotzi Tendami edo Tendamen arrazoizko kontroletik kanpo dagoenean;
- d) Titular izateagatik edo Baldintza Orokor hauen arabera ematen diren abantaila edo zerbitzuetan Titularrari eragindako zeharkako edo ondoriozko edozein kalterengatik;
- e) Titularrak Baldintza Orokor hauetan aurreikusitakoaren arabera titular gisa egindako erabilpen okerretik eratorritako kalte eta galerengatik;
- f) Bide telematikoz Titularraren esku jarritako zerbitzuen fidagarritasunaz, erabilgarritasunaz edo jarraitutasunaz, eta beraz, baztertu egiten du bere web-orriaren edo zerbitzuen erabilgarritasun, fidagarritasun edo jarraitasun faltagatik sor daitezkeen kalte edota galera guztien gaineko erantzukizuna, nahiz eta kaltetutakoari laguntza teknikoa ematen saiatuko den, ahal duen neurrian;

Ez da Tendamen betebeharra izango Interneteko orriak bisitatzen dituzten erabiltzaileen edo pertsonen softwarean edo hardwarean aldaketak eragin ditzaketen edukietan birusak edo elementuak egongo diren aurretik kontrolatzea edo ez kontrolatzea.

## **9. Lege aplikagarria eta jurisdikzioa**

Baldintza Orokor hauek espainiar legeriaren mende egongo dira alta Espainian emandako Titularrentzat, portugaldar legeriaren mende alta Portugalen

emandako Titularrentzat, eta hungariar legeriaren mende, berriz, Hungarian alta emandako Titularrentzat. Alderdiak Titularraren bizilekuko epaitegi eta auzitegien mende jartzen dira gatazkak ebazteko, eta uko egiten diote beste edozein foruri.

## **10.Datuen babesa**

Datuak Babesteko gure Politikari buruzko informazio zehatza kontsulta dezakezu [hemen](#).